

Donostian, bildu dira: I. M.<sup>a</sup> Etxaide jauna, buru, Lekuona, Gorostiaga, Irigaray eta Arrue jaun euskaltzaiñak. Aita Larrañaga apezpiku jauna, Aita Zabala, Aresti, Zugasti, Valverde, Loidi, Zubicaray eta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da. Zugasti jaunak diño bera be egon zala batzarrean eta eztala bere izena agertzen. Gaiñerakoan ontzat artu da.

Mariano Iceta jaunak zuzendu dauen karta bat irakurri da. Eskerrak emoten ditu urgazle izentau dalako.

Urtarrillaren 28-an emon jakiezan sariak Ondarroan euskerazko esamiñetan sarituak izan zirean neska-mutillai. Ondarroako Ayuntamentuari eskerrak emon bekioz.

I. M. Etxaide jaunak "Auspoa liburutegia" izenagaz ateraten direan liburuak asko goratu ditu. Euskaltzaindia bat dator orretan eta eskerrak eta zorionak emon bekiez orren ardurea daukienai egiten daben lan bikaiñagaitik.

Loidi jaunak Bilboko elexa batzuetan egingo direan misiñoen programa bat eka-  
rri dau. Pozik ikusten dau Euskaltzaindiak euskerea eleketan egin daiten.

Zubicaray-k euskal-teatroaz berba egin dau. Urrengo batzar batean erabagi bedi zerbait.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburu-ordea*

A. Irigaray